* S. Causa legitimoric bague barurtcen eztienec, nola eguitendie becatu? E. Mortalqui.*

* S. Eta precepto ez satecoarnec araqui barur egunetan eta abstinenciarnetan, eta ez satecoarnec arroltce eta lacticinio garizoman, ez izatearequin bula, nori obligatcendu? E. Dien gucier uru arracioarna.*

M. Errantzquitzie obra misericordiarnac.

Obra misericordiarnac ditzu amalaur: zazpiac espiritualac eta zazpiac corporalac.

Espiritualac ditzu cuec.

Lena eracustea eztaquienari.

Bigarna ematea consejo ona beardu enari.

Yrurgarna corregitcea uts eguitenduenari.

Laurgarna parcatcea injuriac.

Borzgarna consolatcea tristea.

Seigarna sufritcea pacienciaz equin gure projimoen adversidade eta flaquezac.

Zazpigarna otoi eguitea Jangoicoari vicien eta hilengatic.

Corporalac ditzu cuec.

Lena visitatcea heriac.

Bigarna ematea jatera goseduenari.

Irurgarna ematea edatra egarriduenari.
Laurgarna rescatatzea cautivoa.
Borzgarna beztitzea bulucia.
Seigarna ematea ostatu peregrinoari.
Zazpigarna orztea hilac.
G. Ceren deitcendra misericordiarnac? E. Ceren ezbaitie obligatcen justiciaz. G. Nöiz obligatcendie preceptoz? E. Gurizon discretoen juicioari grave dren necesidadetan.
* G. Eta misericordiaren obra cuen gatic, eta berce on cristiroac ejecutatcendituenen gatic, ya izanditezpreceptozcoac, ya devociozcoac, cer conseguitcendu? E. Jangoicoaren gracian badago, meresitcea cayen gatic aumentu graciarna eta gloriarna: satisfacio ematea caitaz bere becatuen gatic; eta alcanzatzea Jaunarengani ontarzun cala espiritualac, nola temporalac, convenibazayo.*
* G. Eta ceren erratencie Jangoicoaren gracian badago? E. Ceren becatu mortalean daudenec obra on eguinac, ez baitra meritorio eztare satisfactorio, baizic bacarric impetratorio zomaetan cayen gatic cerbait modotan baitaizque consegui Jaunaren beneficio zonait.*

Laurgarren parte zointan declaratzenbaitra Sacramentuac zoin bearbaitra recibitu.

Icusizugu nola daquitzien ginetsibearciena, otoi eguinbearciena eta obratubearciena; icuszaguin nola daquicien recibitubearciena, zoin baita azquena. Erranzquitzie sacramentuac.

Sacramentu ama sandu Elizarnac ditzu zazpi; lembicico borzac ditzu necesidadezcoac, obraz edo vorondatez, zoin bague eztaitequezu salva guizona eztzenbaitu menosprecioz; berce biac ditzu vorondatezcoac,

Lena Bautismoa, edo Bateatcea.

Bigarna Confirmacioa.

Irurgarna Penitenciara, edo Confesioa.

Laurgarna Comunionea edo Comecatcea.

Borzgarna Oliadrara.

Seigarna Orden sacerdotala.

Zazpigarra Matrimonioa.

G. Cer gauza dra sacramentuac? E. Ditzu señale clarobatzu, Cristo gure jaunac instituitzie, guri ematceco aitaz bete graciara eta virtuteac.

G. Cer gauza da graciara? E. Zu izate divino bat

zoinec eguitenbaitu guizona Jangoicoaren seme,
eta cerueco heredero.

* G. Eta nola deitzenda gracia cau? E. Santificantea.*

* Eta badago bere zomait genero gracienic contar
landa? E. Bátzu bereeac zoin deitcenbaitugu ac-
tualac, edo ausilioac eta inspiracioac, zoin bague
erdioquezzugu as, ez continua, eztare trica gau-
za pertenecienteric vici eternoarendaco.*

* G. Et onec cer dra? E. Socorru ciertobatzu zoin Jan-
goicoac ematenbaitaucu evitatceco gaitza eta obrat-
ceco ona, nola predicuac, ejemplo onac, hiltce
derrepentezcoac, eta argui ciertobatzu zointaz
Jangoicoac ilustratzenbaitu, eta deseyu sandu
batzu zointaz moguitenbaitugu gure voronda-
teac onarendaco.*

G. Cer virtute ematenitu sacramentuac gracia-
requin batean? E. Principalqui irur, teolo-
galac eta divinoac. G. Zoin dra? E. Fedea, es-
peranzara eta caritatea. G. Cer gauza da fedea?
E. Sinestea iruri erguinuena, ceren Jangoicoac re-
velatubaitu, + eta Ama sandu Elizac cala en-
cuitenbaitaucu +.

G. Cer gauza da esperanzara? E. Esperatcea glo-

riara, mediatuz Jangoicoaren graciac eta gu-
auren obra onec. G. Cer gauza da caritatea? E. Ones-
tea Jangoicoa gauza gucies gañetic, eta guauren
projimoac, guaur beroc bezala, obratuz guc aye-
quin, guc naiguinuquena bezala obralezayen a-
yec gurequin.

G. Certaco izancen instituitu zic sacramentu bau-
tismoarena? E. Becatu originalaren quenteeco eta
berce zoinaiden izanladien bateatcendena-
ren baitan. G. Cer da becatu originala? E. Cura
zoinequin sortcen baigera gucioc, heredatric
lembicico guauren aita eta amaren ganic.

* G. Eta necesidadearen casoan nore dezque batea?
E. Zoinaiden guizon edo emaztec zoinec
izanzan usu arracioarena *

* G. Eta nola beardu ejecutatu? E. Ysuriz ur na-
tural [redacted]maren buruaren gañean eta erranez
bateatceco intencioarequin: nic bateatcen ut Ai-
taren nombrean, eta Semearenean, eta Espi-
ritu sanduarenean. *

G. Certaco da sacramentu confirmacioarena?
E. Confirmatceco eta fortalecitceco [redacted] Feilean, zoin recibitu baigui-

nuen bautismoan.

*G. Eta duenac arracioaren usua eta recibitcen sacramentu can becatu mortalean eguitendua becatu? E. Mortalqui.

* G. Zer bear du eguin ez becaturic eguiteco recibitcenduelaric? E. Izer len Jangoicoaren gracian eguinez confesiobat ona.*

G. Certaco da Sacramento penitenciarna? E. Parcatceco becatu eguintac bautismoaren guiletic. G. Cer becatu dra cuec? E. Mortalac, eta bastare venialac. G. Cer da becatu mortala? E. Zu erratea, eguitea, pentsacetcea, edo desecatcea cerbait Jangoicoaren leguearen contra materia gravean. G. Ceren deitcenda mortal? E. Ceren hiltcenbaitu eguitenduenaren arimara.

✝G. Zonat gauza dra necesario recibitceco sacramentu penitenciarna, edo eguiteco confesio bat ona? E. Borz zoin baitra concienciaren ecsamena, biotceco dolorea, emiendaren propositoa, agozco confesioa eta obrazco satisfaccioa.✝.

✝ G. Cer da concienciaren ecsamena? E. Zu egui-

tea diligencia convenientcac oriteeco bat bere becatu ez confesatuez, dicurrituz Jangoicoaren legueco mandamentuetaric eta Elizarnetaric, paraguetaric non ebilibaita, eta ocupacioetaric zoin izanbaitu, galdin ondorean arqui Jangoicoari izanteco bere culpac.†

†G. Cer da dolorea? E. Pesare bat edo sentimentura sobrenatural ofendituaz Jangoicoa.†

†G. Zomat guisatra da dolorea? E. Bidatra: atricioarna eta contricioarna†

†G. Cer da dolore atricioarna? E. Pesare edo sentimentura sobrenatural bat ofendituaz Jangoicoa, ceren juez justo bezala baigrozque gaztiga ifernuco penez, priva graciatic eta gloriatic, eta becatuaren itsusitarzunaren gatic, confesatceco eta emendatceco propositoreguin.†

†G. Cer da dolore contricioarna? E. Pesare edo sentimentura sobrenatural bat ofendituaz Jangoicoa bacarric izanaz nor dena, suma bondade infinitoa, confesatceco eta emendatceco propositoreguin.†

†G. Dolore cuetaric zoin da obena? E. Contricioarna; ceren justificatcenbaitu arimara oraïnc confesatubeño len: atricioarnac éz, baicic dagolaric sruinto

confesioaréquin.†

†G. Eta confesioa irandadien onic, cer dolore bearda eman penitenteac? E. Bearzu procuratu iratea dolore contricioarena; baya confesioa iranenzuenic atricioarenaréquin bacarric.†

†G. Noiz bearda iran eta manifestatu dolorea? E. Sacerdoteac eman baño len absolucioa.†

†G. Nola bearda manifestatu dolorea? E. Humildadearen autoez, emanez bularreco golpeac, eta erranez itcez, albadaitegue, eta biotzaz Jesucristo ene Jauna, edo berce otoi arrepentimentuarena.†

†G. Cer gauza da propositoa? E. Zu determinacio firme bat beinere ez ofenditceco Jangoicoa.†

†G. Cer da confesio agozcoa? E. Zu manifestatcea engañuric eta guezurric bague becatu mortal guciac confesoreari, penitenciaren cumplitceco animuaréquin.†

†G. Eta isiltcenduenac alguegatic zonait becatu mortal, edo confesatzen zonait grave zein ez baitu cometitu, edo eguiten bere confesioa doloreric bague edo propositoric bague, edo penitenciaren cumplitceco animuric bague, con-

fesatcendaya onguí? E. Ez, aita; cometitcenzu sacrilegio bat, eta gueldituenzu obligacioa-requin itzulceco confesatzra becatu confesatua-tuenac eta confesatuezituenac sacrilegio eguin-zuenarequin.+

+ G. Eta moguitceco bat formatzra dolore eta pro-posito eguiazcoa cér izanenzayo conveniente eguitea? E. Ellegatubeño len confesatzra, galditea Jangoicoari bere auxilioac, eta moguitcea beradolorea la eta becatuaren aborrícioala, considratuz aren itsusitarzuna, ifernuco penac, graciaren eta gloriaren galtcea, eta Jangoicoaren bonda-dea eta bere amabilidade infinitoa manifesta-tcic principalqui bere pasionean eta hiltcean.

+ G. Cér gauza dá satisfaccio obrarcoa? E. Zú ema-tea satisfaccio Jangoicoari pena temporal zor-zaizonez becatuengatic, cumplituz penitencia-ra zoin ematenbaitu confesoreac.+

✱ G. Eta badroguegua eman satisfaccio Jangoicoari pena temporalengatic, penitencia ematenzai-cunaz beño gueagoz? E. Bai, aita; Jangoicoaren gracian eguin obra on genero gucioz, eta iraba-ciz indulgenciac.✱

40 # G. Cer gauzac dira indulgenciac? E. Gracia bateu zoinengatic concediten baita [redacted] parcacio pena temporalarna, zoin bear baita pagatu becatuengatic vici contan edo bercean.*

* G. Eta nola bear dira irabaci? E. Eguinez graciaren estadoan manatcen dena fin contaco.*

G. Eta bear da ya bat becatu mortalean [redacted] erorcen den aldioro confesatu bereala parcadaguion? E. On cimuque; baya eztzu necesario. G. Bada cer eguin bear du? E. Edoqui dolore eguiarcoa bere becatuena, emendatceco propositoarequin, eta confesatceco amasandu Elizac manatcen duenean. G. Cer gauza da becatu veniala? E. Zu disposicio bat becatu mortalarna. G. Ceren deitcen da venial? E. Ceren ligeroqui erorcen baita guizona cartan, eta ligeroqui parcatcen baizayo. G. Zomat gauzarengatic parcatcen zaizco? E. Bedratzirengatic. G. Zoin dira? E. Lembizicoa entzuteagatic Meza.

Vigarna comecatceagatic.

Irurgarna, errateagatic confesio generala.

Laurgarna Obispoaren bendiciogatic.
Borzgarna ur benedicatugatic.
Seisgarna ogui benedicatugatic.
Zazpigarna errateagatic Aita gureara.
Zortcigarna aitceagatic predicu.
Bedratcigarna bularretaco golpegatic galdi-
tuez Jangoicoari parcamendu.
G. Certaco da Sacramentu santisimo comunio-
ne edo comecadrarna? E. Recibitcendelaric digno-
qui, irandadien gure arimen alimentu eta au-
mentadazaicun graciara eta virtuteac.
+ G. Cer disposicioneac galditendra comecatceco dignoqui?
E. Irur: fatea Jangoicoaren gracian, egotea barur
naturalean, eta saguitea noren recibitzera fatendén
deseyurequin aren recibitceco. +
+ G. Erorícena zomait becatu mortaltan, nola beardu
disponitu comecatceco? E. confesatcendielaric altci-
netic. +
+ G. Cer naidu erran egotea barur naturalean? E. Dú-
ez sjana eta ez edana deusere altcineco gaueco amabi-
etaric altcina. +
+ G. Nor recibitcenda Sacramentu santisimo Eucaris-
tia edo Communionearnean? E. Cristo, Jangoico etagui-

zon eguiarcoa, zoin baitago realqui cerutan, eta aldareco Sacramentu Santisimoan.†

† G. Cer dago hostian Sacerdoteac consagracioaren itzac erran beño len? E. Ogui orantzic bague.†

† G. Eta calicean? E. Ardo ur chorta batequin.†

† G. Cer dago hostian consagracioaren ondorean? E. Jesucristoren corputza suntoqui bere odol, arima eta divinidadearequin.†

† G. Eta calicean? Jesucristoren odola suntoqui bere corputz, arima eta divinidadearequin.†

† G. Seguin cau Jesucristo gucia diozu hostian eta calicean? E. Jesucristo gucia diozu hostia gucian, eta gucia aren zoinaiden partetan, eta igualqui calicean.†

† G. Eta consagracioaren ondorean dagoa hostian ogui; edo calicean ardo? E. Ez, aita, baicic oguiaren eta ardoaren accidenteac, nola usain, colore, gusto &c.†

† G. Eta partitcenbada hostiara, edo berecsten calicean dagona, partitcen edo berecstendaya Jesucristo? E. Ez, aita, gucia osoric gueldicenzu gucietan, eta zoinaiden partetan.†

† G. Eta ellegatcendena communioneala disposicio ernosac bague, recibitcendua baitare Jesucristo? E. Bai, aita, baya provechu batre bague, ceren cometitcenbaitu

becatu gravisimo edo andien bat.+

G. Certaco da sacramentu oliadrarna? E. Yru gauzataco.

G. Zoin dra? E. Lena guentceco viàgasto igarico mancha eta erreliquiac.

Bigarna ematceco indar arimari demonioaren tentacioen contra.

Yrugarna ematceco osasuna corpitzari convenibazogo.

G. Certaco da sacramentu ordenarna? E. Consagratceco eta ordenatceco Elizaren ministro dignoac, nola baitra Sacerdoteac, Diaconoac eta Subdiaconoac.

G. Certaco da sacramentu matrimonioarna? E. Casatceco eta ematceco casatuer gracia, zoinequin vicitsiranten alcarren artean baquequi, eta azayen ume cerualaco.

+G. Eta ezdrenac erditen Jangoicoaren gracian, nola beardra disponitu recibitceco arendaco? E. Confesatuez+

Becatu capitalac ditru zazpi.

Lena soberria.

Bigarna avaricia.

Yrugarna lujuria.

Laurgarna ira.

Borgarna gula.

Seigarna invidia.

Zazpigarna pereza.

G. Ceren deituitue becatu capitalac zazpi curac zoin comunzqui deitcenbaitra mortalac? E. Deitcendituzu capitalac, ceren baitra berce vicioen burruituri eta erroac bezala, zoin ayengamic sortcenbaitra; eta deitcea mortalac ezteiairtezu euadratcen cain ongui, bada anitz aldiz eztu baitcic venial. G. Noiz dra mortalac? E. Drenean Jangoicoaren eta proguimoaren caritatearen contra.

G. Noiz dra caritatearen contra? E. Ayengatic ausitendenean Jangoicoaren zonait mandamentu edo Elizarmic gaura gravean.

G. Cér da sobervia? E. Apetito desordenatu bat altcinatric irateco bercer.

G. Cér da avaricia? E. Apetito desordenatubat haciendarna.

G. Cér da lujuria? E. Apetito desordenatu bat deleite ciquin eta carnalena.

G. Cér da ira? E. Apetito desordenatubat venganzarna.

G. Cér da gula? E. Apetito desordenatubat ssateco eta edateco.

G. Cér da invidia? Apetito desordenatubat ber

cen ontarzunarna

G. Cér dá preza? E. Animuaren decaimentu bat ongui obratcean.

Zazpi vicio cuen contra baitzu zazpi virtute.

Soberviaren contra humildadea.

Avariciaren contra larguera.

Lujuriaren contra castidadea.

Yraren contra paciencia.

Gularen contra templanza.

Ynvidiaren contra caritatea.

Prezaren contra diligencia.

Animaren etsayac zointaric bearbaitugui iesequin ditzu irur.

Lena zú mundua.

Bigarna demonioa.

Yrurgarna araguia.

G. Nola iesieguitenda mundutic? E. Bere pompa eta vanidaden menesprecioz. G. Nola iesieguitenda demoniotic? E. Oracioz eta humildadez. G. Nola iesieguitenda araguitic? E. Asperezaz, disiplinaz eta baruruez: cau zu etsai andien duguna, ceren araguia ezbaitroquegu egoz guauvenganic, mundua eta demonioa bai.

Virtute teologalac ditzu irur.

Lena fedea. Bigarna esperanzara. Yrurgarna caritatea.

* G. Eta nola eztugu faltatzen obligaciola zoin baitugu eguiteco virtute cuen actoac? E. Erzatuz devocio eta frecuenciaregui (justo dena berala zoinasdesu cristioc ejecutaran cala) credoa, aita gurcara, eta errauer biotcez acto contricioarna.*

Virtute cardinalac ditzu laur.

Lena prudencia, Bigarna justicia. Yrurgarna fortaleza. Laurgarna templanza.

Sentido corporalac ditzu borz.

Lena icustea beguiez. Bigarna aitcea bearriez. Yrurgarna gustatcea agoaz. Laurgarna querueguitea sudurrez. Borzgarna onguitcea escuez.

G. Certaco emanzaizcun Jangoicoac sentidoac eta berce miembro guciac? E. Cerbitzaguinzanguciez gauza gucietan.

Arimaren potenciac ditzu irur.

Memoria, entendamentu etavorondatea.

G. Certaco emanzaucun Jangoicoac memoriara? E. Oritceco artaz eta bere beneficioez. G. Certaco emanzaucun entendamentua? E. Yzanteco gure Jauna,

eta pentsatceco aren baitan. G. Certaco emanzaucun vorondatea? E. Ineszagun suna bondade bezala, eta projimoa aren gatic.

+ G. Eta cer gaura da gure arimara zoinenac ~~ba~~ baitira potencia cuec? E. Zu espiritu immortal bat criatric Jangoicoac erdeustaric bere imagen eta semejanzala. +

Espiritu sanduaren donac ditru zazpi.

Lena don sabiduriarna. Bigarna don entendamentuarna. Irugarna don consejuarna. Laurgarna don cienciarna. ~~Borzgarna don~~ fortalezarna. Seigarna don piedadearna. Zazpigarna don Jangoicoaren beldurrarna.

Espiritu sanduaren frutuac ditru amabi.

Lena caritatea. Bigarna baquea. Irurgarna longanimidadea. Laurgarna benignidadea. Borzgarna fedea. Seigarna continenciara. Zazpigarna gozoa. Zortcigarna pacienciara. Bedratcigarna bondadea. Amargarna mansedumbrea. Amecagarna modestiara. Amabigarna castidadea.

Bienaventuranzac ditru amabi.

1. Bienaventuratu pobre espiritucoac, ceren ayena baita cerruetaco reinoa.

2. Bienaventuratu mantsuac ceren ayec poseitren-
baitie lurra.
3. Bienaventuratu near eguitendienac, ceren urac
izanenbaitra consolatric.
4. Bienaventuratu dienac gose eta egarri justiciarena,
ceren urac izanenbaitra aseric.
5. Bienaventuratu misericordiosoac, ceren ayec
erdietsienbaitie misericordia.
6. Bienaventuratu biotz garbicoac, ceren ayec icu-
sienbaitie Jangoicoa.
7. Bienaventuratu [redacted] pacificoac,
ceren urac izanenbaitra deitric Jangoicoaren seme.
8. Bienaventuratu padecitcendienac persecucio
justiciarengatic, ceren ayena baita ceruetaco [redacted].
reinua.
G. Cer errandugu oray? E. Zortci bienaventuranzac.
G. Cer gauza dra zortci bienaventuranza euec?
E. Espiritu sanduaren virtute eta donen obra obe-
nenac. G. Nor dra pobre espirituzcoac? E. Eztienac
nai honrac, ez abrastarzunac, ez orañic chiquinac.
G. Nor dra mantsuac? E. Eztienac ira, eztare orañic
casic aren movimenturic. G. Nola poseitrendie lurra?
E. Beren ssabe berala. G. Nor dra near eguitendienac?

E. Ezztenditienac placerac oraño ere chiquinac.

G. Nor dra dienac gose eta egarri justiciarna? E. Eguitendienac deseyurequin beren obligatcioaguciian.

G. Nor dra misericordiosoac? E. Aniz piadosoac oraño ere estrañoequin.

G. Nor dra biotz garbicoac? E. Drenac gucir mortificatuac beren pasionetan.

G. Nor dra pacificoac? E. Baquearen obraraleac beren baitan eta bercen baitan.

G. Nor dra padecitcendienac persiguicio justiciarengatic? E. Daudenac firme gucian, perseguitcenbaitie ere.

G. Ceren erec deitcendra bienaventuranzac? E. Ceren cuetan consistitcenbaitu viciontaco[illegible], eta berceco esperanzac.

† G. Zomat dra novisimoac edo postrimeria guizonarnac? E. Laur: hiltcea, juicioa, ifernua eta gloria. †

† G. Cér da hiltcea? E. Separatcea arimara corputzetic. †

† G. Cer da juicioa? E. Contu emanbeardugunа Jangoicoari guaren obra oner eta gaiztoez. †

† G. Zomat juicio dra? E. Bida: particular eta universal. †

† G. Noiz eguitenda juicio particulara? E. Guizona hilta berealа.

† G. Eta universala? E. Verificatrenzu munduaren

fineanedo acabacioan, Josafateco vallean, ara-
guiaren resucitacioaren ondorean.†

†G. Nora fatendra hiltcendrenen arimac?
E. Hiltcenbadra Jangoicoaren gracian eta ezba-
dic purgatcecoric fatentzu cernala: hiltcenbadra
Jangoicoaren gracian, eta badie cér purga, pur-
gatoriorala: hiltcenbadra becatu mortalean, ifer-
nuala: hiltcenbradra arracioaren usua beñolen, e-
ta ezbadaude batcatric, limbuala.†

†G. Cér da ifernua? E. Zu lecu bat lurraren centro-
an, zoin Jangoicoac baitauca destinatric gaiztoen
gaztigutaco.†

†G. Zomar pena padecitcentie condenatuec ifernu-
an? E. Bida: pena dañoarna eta pena sentidoarna.†

†G. Cér da pena dañoarna? E. Privacio beticoa Jan-
goicoaren vistatic edo icustetic berce vician.†

†G. Eta sentidoarna? E. Yfernuco suac tormentu hor-
rorosoa ematendiena condenatucer.†

†G. Cer penac padecitcendra Limbuan? E. Daño-
arna bacarric.†

†G. Cer da Purgatorioa? E. Zu lecu edo estado bat non
purificatcen baitra arima hiltcendrenenac gra-
cian, zorhizanez oraño beren culpen gatic zo-

mait penat†

†G. Cer pena padecitzendie Purgatorioan? E. Padecitcencie temporalqui Jangoicoaren ez icustearen penara, eta bercealde sufritcendie tormentu horrorosoac, baya resignacio eta conformidade admirable edo maravillosoarequin.†

†G. Badozquegua alivia Purgatorioco arimac beren penetan? E. Bai, aita, aplicatuz ayer indulgenciac eta mecen sufragioac eta berce gañalaco obra onac.†

†G. Cer da gloria? E. Zu bienaventuranza eternoa, zoinec consistitcen baitu icustean eta gozatcean Jangoicoaz eternidade gucian sanduen compañian†

†G. Nola consequitzenda salvacioa eta gloriara? E. Guardatuz Mandamentu sanduac.†

---

## Confesioa

Ni becataria confesatcen naiz Jangoico gucis poderosoari, bienaventuratu beti virgen Mariari, bienaventuratu San Miguel Arcangelari, San Juan Bautistari, sandu Apostoler San Pedro eta San Pabloari, sandu gucier, eta zuri Aita, egin dut ala becatu gravequi pentsamenduaz, itcez eta

obrar, nore culpaz, nore culpaz, nore culpa arras andiar: caimberce gatic nozu otoyez bienaventuratu beti virgen Mariari, bienaventuratu Sn Miguel Arcangelari, Sn Juan Bautistari, sandu Apostoler San Pedro eta San Pablo, sandu gucier, eta zuri Aita espirituala otoeguinzazun ene gatic Jangoico gure Jaunari.

Acto contricionearena.

Jesucristo ene Jauna, Jangoico eta guizon eguiazcoa, ene criadore eta redentorea, izanaz zu nor zrena, eta ceren onestenbaitcitut gauza gucien gañetic, pesaredizut nore biotz gueiaz zure ofenditu-az, eta proponitenzut firmequi ez beinere guego becatueguitea, confesatcea, cumplitcea penitenciara zoin izandaquidan imponitric, eta apartatcea zure ofenditceco ocasioguicietaric: ofrecitcendauzut nore vicia, obra eta trabajuac, nore becatuen satisfacciotan, eta confiatcenzut zure bondade divino eta misericordia infinitoan, paratrendaztazula zure odol preciosisimoaren merito[redacted]ti, pasio eta hiltcearen gatic, eta emanendadazula gracia emendatceco eta perseveratceco zure cervitzu son-

duan nore viciaren finealaño. Amen.

* Mayaren benedicacioa, edo bendicioa.

Ene Jaun Jangoicoa, emanzazu bendicioa guri, eta alimentuari, zoin oray artzen baitugu, mantenaguiten zure cerbitzu sanduan. Amen.

Aita gurea &c*

* Gracien ematea bazcariaren ondorean.

Graciac ematen darozquizugu, Jauna, alimentuaz zoin eman baitauzuzu: eguin dazaicuzu esquer cerbitzadazaicun onguiz. Amen.

Aita gurea &c*

* Oracio llabur ofrecitzeco goicetic Jangoicoaren honra eta gloriataco eguneco obra gueciac.

Nic ematen darozquitzut graciac, ene Jangoicoa, beneficio gucien gatic zoin zure escu generosotic recibitu baititut, eta particularqui enteiaz ellegatzera egun contra, zointan zure honra eta gloriataco ofrecitzen darozquizut nore pentsamendu, itz eta obra guciac, Jesucristoren Odol eta meritoequin; eta firmequi propositzen zut zure graciarequin ez zure ofenditcea bereon: socorranazazu bada, Jauna zuauren auxilioez, practicazquidan cala Jesucristoren merito, bere Ama

santisimarnen eta sandu guzienen gatic. A-
men.*

Oracio Sudario sanducoarna.

Jaun Jangoicoa zoinec utzibaitzinaucun zu-
[redacted] re Pasioaren señalea Man-
dre sanduan, zointan irambaitzen estaliric zu-
re corputz santisimoa izancintzanean Josef-
ez erausitsiric curutzetic; concedidazaicuzu,
Jaun arras piadosoa, zure hiltze eta obiaren
gatic iranguiten ermanic Resurreccio [redacted]
aren gloriala, non vicibaitzera eta reinat-
cenbaitzu Jangoico aitareguin, Espiritu san-
duaren unidadean, Jangoico sigloen siglo
guzietan.

Acto llabur Fede, Esperanza eta
Caritatearnac.

Acto Fedearna.

Sinestenzut firmequi dela Jangoico bat ba-
carric, [redacted] remunerara-
le sobrenatural, zoinec [redacted]miatcenbaitu
onac eta gastigatcen gastoac. Sinestenzut Tri-
nitate Santisimaren Misterioan, Aita, Se-

mea eta Espiritu Sandua, iru Persona distinta eta Jangoico bat bacarric eguiazcoa. Ginestenzut Jangoicoaren Semearen Encarnacioaren Misterioan eguinzela Guizon Purisima Maria beti Virgenaren entrañetan Espiritu Sanduaren obraz, gure redimitceco eta salvatceco Pasio eta Iltze arras precioso Jesucristo berarnaz, Jangoico eguiazco eta Guizon eguiazco, zoin resucititu baitzen eta diozu Cerúan eta Aldareco Sacramentu Santisimoan. Ginestenzut Ama Sandu Elizac ginestendúen gucia eta manatcendúena ginesteco, ceren revelatu baitu gucia Jangoicoac, zoin baita lembicico eguiara, ~~[illegible]~~ ~~[illegible]~~ zoinec ez baitroque engaña eta eztare iran engañatric.

## Acto Esperanzarena.

Esperatcenzut ~~Jangoico~~ gucizpoderosoa baitan, eta cervitzatcendacotalaric, lagundric graciaz, beardadala parcatu eta bearmela salvatu bere bondade ~~infinito~~ eta misericordia infinitoaren gatic eta Jesucristo gure Jaunaren meritoen gatic.

## Acto Caritatearena.

Onestenzut Jangoicoa gauza gucier gañetic, izanaz nor dena, bere bondade infinitoagatic; eta onestenzut projimoa niaur bezala, ceren baita Jangoicoaren criatura eguinic bere imagen eta semejanzala. Parcatzendiabezut biotcez nore etsai gucier, eta desatcendiabezut ongui gucia, eta ez onetsiaz bearnuena bezala, Jangoico bat cain ona, erratenzut, Jauna, pesáredutala.

Benedicto XIV concedituztuen Indulgenciac fiel gucier, zoinec erratzenbaitic devocionequin eta beren biotceco fondotic acto fede, esperanza eta caritatearnac.

1º Zazpi urte eta zazpi cuarentenaren Indulgencia aldi bacoch[illegible]rendaco.

2º. Indulgencia plenaria aldi bater ilabetean erratentienendaco [redacted] ilabeteco egun gucier: cein albaizanenetic irabatzi zoinaiden eguinez, beren elecioari, non eta sinceroqui arrepentituric, eta confesatu eta comecatu ondorean, galdinzayen Jangoicoari segun Elizaren intencioac.

3 Berce indulgencia plenaria bat hiltcearen

tenorean cayen gucíendaco zoinec equinaquien acto berac devocioarequin animu arrepentituarequin, eta posible bada, confesatu eta comecatu ondorean. Indulgencia onec ditzu aplicadaitequenac purgatorioco arimengatic: eztau necesario atenitcea edo sujetatcea formula determinatuala: bacochac dioquezu elegi fórmula gueago agradatcenzayona, non eta expresazquien claridaderequin iruz virtute teologal guzien motivoac.